



IZAPIDETZE-MEMORIA, GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINNTZA  
OROKORRAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO  
OROKORRAREN ARTEKO INFORMAZIO-TRUKEARI BURUZKO  
HITZARMENA GOBERNU KONTSEILUARI HELARAZTEKO

I. XEDEA ETA OINARRIA.

Gobernu Kontseiluak onartu beharreko egintza Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko hitzarmena da, informazioa elkarri trukatzeari buruzkoa. Jaurlaritzaren Kontseiluaren esku-hartzea Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 55.1 b) artikuluan ezarritako eskakizunaren ondorio da.

II. TXOSTENAK ETA MEMORIAK.

1.- 2022ko irailaren 16an, Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digmaletako Zuzendaritzak proposatu zuen informazioa trukatzeko sistema egonkor bat arautzea, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren artean informazio-trukeari buruzko hitzarmen bat sinatuta. Horretarako, honako dokumentazio hau aurkeztu da:

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak informazio-trukeari buruzko hitzarmena sinatzeko beharra justifikatzeko memoria eta memoria ekonomikoa.

- Hitzarmenaren behin-behineko testua.

2.- Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, 2022ko azaroaren 28an, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko zerbitzu juridikoak txostena egin zuen, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko Hitzarmenaren proposamena zuzenbidearen arabera den aztertzeko. Hitzarmen hori informazio-trukeari buruzkoa da, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 6.1.e) eta f) artikuluetan xedatutakoaren arabera.



3.- 2022ko abenduaren 22an, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritzak aldeko txostena eman zuen.

4.- 2022ko abenduaren 29an, datuak babesteari buruzko txostena egin zuen Datuak Babesteko ordezkariak, eta haren ustez, datuak babesteko klausula zuzena da, datuen babesaren ikuspegitik.

5.- 2023ko urtarrilaren 4an, justifikazio-memoria zabaldu bat sartu zen espedientean, txosten juridikoak justifikazio-memoria osatzeko adierazitako beharra betetzeko. Gainera, memoria berri honek arestian aipatutako txostenak eta hitzarmenaren zirriborroko testuan egindako zuzenketak jasotzen ditu.

6.- 2023ko urtarrilaren 4an, Hitzarmenaren zirriborro bat erantsi zen, lehen adierazitako txostenek egindako ekarpen guztiak jasotzen dituen.

7.- 2023ko otsailaren 21ean, aldeko legezketasun-txostena eman zen, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 13.1.b) artikulua betez.

8.- Azkenik, 2023ko martxoaren 17an, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak kontrol ekonomiko-fiskalaren aldeko txostena egin zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legeak emandako eskumenei jarraiki. Lege horren testu bategina urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuaren 4. artikuluekin lotuta.

### III. ONDORIOA.

Aldeko txostenak jaso ondoren, sailaren txosten juridikoa, legezketasun-txostena eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena ikusita, egokitzat jotzen dugu aurkeztea, Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 55.1 b) artikuluan xedatutakoaren arabera Gobernu Kontseiluak onar dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 21a

Sin.: MATXALEN LAUZIRIKA JAUREGI

**HERRITARREI ARRETA EMATEKO ETA ZERBITZU DIGITALETAKO  
ZUZENDARIA**